



LEGE BILTZARREKO AGERRALDIA 2023ko ekainaren 9a

Eskerrik asko gonbiteagatik eta zuen denboragatik.

Batzorde honetan izan ginen 2021eko martxoan eta abenduan, 2022ko otsailean akordioa plazaratu zenuten, eta guk "Akordio txar batetik lege on batera" joateko hausnarketa/proposamena egin genuen, 2022ko ekainean berriro bertaratu ginen.

Ez dizuegu proposamenik luzatuko lege proiektua hobetzeko, baizik eta errotik aldatzeko. Arrazoiak laburbilduta hauek dira:

- Pribatuaren alde eta publikoaren kontra doa proiektu hau.
- Euskaldunizazio alorrean ez du aurrerapausurik ematen.
- Parte hartzeari buruz hitz egiten du, baina hobekuntzarik ez dago.
- Segregazioaren aurkako neurriak aurreko legedian ere jasota zeuden, sare pribatuari diru gehiago emateko aitzakia bihur daitezke. Legea ontzat emateak sare publikoa murrizteari atea zabalduko dio.

Puntuz puntu joango gara.

Euskara, hizkuntza guztiak bezala, altxor bat da, zaindu eta mantendu beharrekoa. Gure hizkuntza propioa da, ez da hemengo bakarra, baina Euskal Herria bada euskara hitz egiten den eremu bakarra, horregatik esfortzuak egitea ezinbestekoa dugu. Orain arte, zorionez, EAEn inork ez da formulazio horren kontra agertu modu esplizitoan.

Euskarak bizirik irauteko, herritar guztiona izan behar du.

Hizkuntzaren normalizazioa ezin da utzi hezkuntza sistemaren esku soilik, baina hezkuntzatik ahal den guztia egin behar da.

Hamarkadak dira hizkuntza ereduen sistema martxan jarri zenetik, orain arteko esperientziak zera frogatu digu:

- Euskararen egoera ahula denez, horren ezagutza-erabilera maila ez dago guztiz bermatuta ezta murgiltze (D) ereduan ere, baina hori da gehien euskalduntzen duen eredua.

- Gaztelaniaren ezagutza-erabilera maila bermatuta dago hizkuntza eredu eta inguru soziolinguistiko guztietan (aditu batek esanda hementxe astelehenean)
- Sare publikoaren barruan egoera sozioekonomiko apalena duten familiak azkenak izan dira euskarara iristen, segregazioaren iturri izan da ereduaren sistema, eta etorkizunean jarrai dezake izaten.
- Sistema horrek familien esku utzi du euskara arloan gutxieneko mailaren azpian geratzeko aukera, beste arloetan ez bezala.

Lege proiektuak ez du murgiltze eredia ezartzen, ez gomendatzen, ezta aipatzen ere, orain arte azaleratu diren gabeziei ez die aurre egiten, eta oinarritzko ikasketak amaitzerako B2 maila aipatzen badu ere, ez du baldintzatuko titulazioa lortzeko.

Beraz, euskara indartzeko bidea ez bada zehazten, eta ez bada amaierako maila exijitzen, ez dago inolako aurrerapenik. Hiru hizkuntzak ikas-hizkuntzak izateak ez du justifikaziorik.

Irakasleentzat euskaraz C1 lortzeko proposamena aipatzen da, baina sare publikoan aspalditik dago lortuta helburu hori, beraz, sare pribatuarentzat soilik da. Irakasleei begira maila berean aipatzen dira C1 maila euskaraz zein ingelesean, ez dugu uste gaurko beharrei erantzuteko bidea denik.

Amaitzeko, lege proiektua aurrera badoa sare publikoak pisua galduko du, eta horrekin batera euskararen presentziak ere bai, zeren eta sare publikoa ia osorik euskaldundu da, A eta B eredu ia guztiak sare pribatuan daudelarik.

Egun hauetan 2012tik hona emaitza akademikoak gero eta kaxkarragoak direla entzuten ari gara, fenomeno hori D ereduaren hedapenarekin lotu nahian. Aipatu nahi dugu urte hauetan beste elementu batzuk agertu direla, hala nola ingelesaren presentzia areagotzea, D ereduaren ere, edota pantailak orokortzea. Ez ditzagun atera kontrastatu gabeko ondorioak, eta bila dezagun bikaintasuna arlo guztietan ikasle guztientzat.

Segregazioaren kontra jokatu nahi omen du legeak, baina orain arte segregazioaren muina izan den sare biko sistema betikotu nahi du. Gure ustez, segregazioaren iturria ez da familia batzuen banakako aukeraketa, baizik eta ikasleak bere ISEKen, jatorrien, sinismenen edo ideologiaren arabera sailkatzen dituen sistema bera, eta "sistema" aipatzean ituntze unibertsala eta ikastetxeen erdia esku pribatuetan egotea seinatu nahi dugu. Zeren eta

Sare Pribatua ez da publikoa, ez hemen ezta Pernanbukon ere

- Pribatuan, kontratazioa jabearen irizpideen arabera izan daiteke (kristau eskoletan, adibidez, edozein irakasle kontratatzeko, DECA titulazioa eskatu ohi dute, eliza katolikoak ematen duen agiria, non prestakuntza akademikoa eta jarrera /sinismena ere baloratzen den)
- Legeak arautzen dituen familien eta langileen parte hartzeko aukerak askoz txikiagoak dira sare pribatuan publikoan baino.
- Sare pribatuan zerbitzu osagarriak kobratu ahal dira nahi bezala, bekek betetzen duten prezioaren gainetik.
- Pribatuan legeak markatzen duena baino eskola ordu gehiago ematen dituzte, nahiz eta EAEko gutxieneko ordu kopurua Europako batz bestekoaren gainetik dagoen.
- Pribatukoei gizartearekiko erantzukizunik ez zaie eskatzen, izan ere, haien ikasleen gaineko ardura baino ez dute; interes partikularrei erantzuten diete, legekoak eta zilegiak izan daitekeenak, baina ez orokorrak.
- Pribatuei legea ez betetzeko aukera eman zaie, mugarik gabe: kuotak kobratzeko, matrikula garaian gustuko ikasleak aukeratzeko eta abar. Doakotasuna ikastetxeen betebeharra da, aspaldidanik, ez diru publikoaz erosi beharreko mesedea.

Aurtengo matrikulazio prozesuan ikasleen zaurgarritasun egoera detektatzeko bidea ez dirudi oso zehatza izan denik, eta, bestaldetik, %15aren barruan ezin da jaso zaurgarritasun osoa, pobreziaren tasa hori baldin bada (AROE txostena). Beste %85a homogenea ote da?

Izaera publikoa titularitatean hasten da, baina ez da hor agortzen bilatzen dugun eredua. Lege proiektuak jasotzen dituen programa kontratuak, kalitate zigilua edo zuzendarien papera ere kritikatu nahi dugu.

Jokin Bildarratzek publikoki aitortu du familiek ez dutela ikastetxea aukeratzeko eskubidea, baizik eta haien nahiak adierazteko, eta plaza administrazioak esleitzen die. Gauza bera adierazi du Arartekoak ebazpen batean, eta gauza bera pentsatzen dugu guk. Familien ustezko eskubide horretatik abiatuta segregazioa baino besterik ezin da sortu, eta, gainera, ezinezkoa litzateke guztien nahia errespetatzea, eta,

beraz, segregazioa eta injustizia sortzen da, batzuk aukeratzen baitute eta beste batzuk ez.

Sare publikoa sistemaren ardatza izateak esan nahi du hori lehenestea eta indartzea, sistemaren oinarritzat hartzea eta publikoak bete ezin duena ituntzea. Era berean, **gaineskaintza** saihestea ez da sare pribatuari gero eta gela gehiago ituntzea eta sare publikoko lerroak ixtea. Are gutxiago da esatea ikastetxe publiko guztiek 2 lerroko IPlak izan behar dutela, eta baldintzak betetzen ez dituztenak desagertzeko bidean jarri.

0 km: eskola garraioa ezinbesteko zerbitzua da populazioa sakabanatuta dagoen zonaldeetan, baita premia berezi batzuen kasuetan, aldiz, kaltegarria guttiz, kutsakorra eta sostengaezina da beharrezkoa ez denean. Sare publikoko eskola garraioa izateko gutxieneko distantzia exijitzen da, sare pribatuak, berriz, umeak barra barra garraiatzen ditu. Zer beharra dago Bilbon egunero 81 bus baino gehiago umeak aurrera eta atzera ibiltzeko?

Laikotasuna eta doktrinamendua: ikastetxe erlijiosoetan otoi egiten da klase orduetan, ala ez dakizue? Laikotasuna ez da bakarrik ikasle bakoitzaren sinesmenaren errespetuari begiratzea, hori da inkisidore ez izatea, eta ondo dago, baino laikotasuna zerbait gehiago da, sinesmen guztiek errespetu bera jasotzea, eta praktika konfesionalak ikastetxetik at uztea, hain zuzen ere.

Hezkuntzan ohituta gaude **indar-neurri positiboak** lehenesten zigorren gaineratik, hau da, gauzak ondo egiten direnean txalotzea nahiago dugu gauzak txarto egiten direnean zigorrak ezartzea baino. Une honetan gauzak txarto egin dituzten ikastetxeak txalotzen eta indartzen ari da lege proiektua.

Babes soziala izatea ez da pribatuko patronalen eskaera guztiei men egitea. Ondo baino hobeto dakizue legea babesten ari zareten alderdietan sare publikoaren alde eta lege horren kontra jende asko dagoela. Guk jakin badakigu, nahiz eta inori ez diogun galdetzen zer bozkatzen duen gure tokiko plataformetan sartzeko.

Babes sindikalari dagokionez, sindikatu baten babesa lortzea, bozkatuena balitz ere, ez litzateke izango **gehiengo sindikalaren babesa** izatea. Era berean, gehiengo sindikalarekin akordio partzial bat sinatzeak (Hornikuntza akordioa, kasu) ez du

esan nahi gehiengo hori bat datorrenik akordio horretan aipatzen ez den lege proiektuarekin.

Zuen ardura da eskubideak babestea, ez familien ustezko erabakien atzean izkutatzea, ez dira gauza bera dagoenaren artean aukeratzea zein hezkuntza sistema oso bat planifikatzea. Era berean, diru publikoa modu zuzena eta eraginkorrean inbertitzeko, zerbitzu publikoak lehenestea duzue bide onena.

Orain lege txarra egiteak eskuak lotuko dizkie datozen urteetan etorriko diren legebiltzarkideei eta gizarte osoari ere, aukera duzue atzera egiteko eta gauzak birpentsatzeko. Ez elikatu gehiago munstroa. Aseezina da, horren froga hezkuntza sailak ikasle pare bat sare publikora bideratu dituelako erakusten ari diren jarrera da.

Eskerrik asko

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO TOPAGUNEA

Gasteizko, Oiongo, Bilboko, Santurtziko, Oarsoaldeako, Astigarragako, Donostialdeko, Lasarte-Oriako, Aiztondoko eta Urola kostaldeko plataformak; Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak, Amurrioko Hezkuntza Publikoaren Sarea eta Debagoieneko Goieskola; EHIGE, HEIZE, Ikasle Sindikatua, Ikasle Ekintza, Gazte Komunistak, STEILAS, CCOO Irakaskuntza, ESK